

El Área de Juventud y Deporte del Ayuntamiento de Bilbao convoca la **Tercera edición** de los **Premios BILBAO GAZTE BALIOK MARTXAN** para apoyar y dar a conocer las iniciativas de las personas jóvenes que persiguen mejorar su entorno social.

En esta Tercera Edición y en el marco del **Programa de Voluntariado Joven del Ayuntamiento de Bilbao** queremos apoyar, en línea con la Carta de Valores de la Ciudad *Bilbao Balioen Hiria*, ideas creativas para hacer frente a los desafíos sociales que plantea Bilbao, a través de la participación y la acción voluntaria de jóvenes de 16 a 30 años.

BASES DE LA CONVOCATORIA

Primera: Objetivos de la convocatoria

- Fomentar la creatividad, la participación, el compromiso y la capacidad de esfuerzo de la juventud puestos al servicio de las demandas sociales,
- Impulsar, desde la visión de los y de las jóvenes, la construcción de un Bilbao más sostenible, tanto desde el aspecto social, como medioambiental.
- Dar la oportunidad a jóvenes que tengan un proyecto social, artístico, deportivo, cultural, ecológico, económico, científico, digital, tecnológico, de hacerlo realidad.

Segunda: Qué iniciativas estamos buscando

- Estamos buscando **iniciativas** innovadoras, con impacto social, que promuevan la participación y la acción voluntaria de jóvenes de 16 a 30 años, en línea con la Carta de Valores de la Ciudad *Bilbao Balioen Hiria*
- Pueden ir dirigidas:
 - a fomentar y promover la participación de los ciudadanos y ciudadanas en acciones de voluntariado impulsadas desde organizaciones privadas que carezcan de ánimo de lucro
 - a llevar a cabo acciones que promuevan y fomenten el voluntariado juvenil.

- Podrán estar vinculadas a proyectos europeos, en el marco del voluntariado o la movilidad
- Deben desarrollarse en Bilbao o fuera de la ciudad siempre que, en este último caso, se acredite una participación sustancial de jóvenes voluntarios/as bilbaínos/as.
- Deben ser realizadas antes del 31.12.2020 y tener un resultado tangible. Podrán presentarse proyectos cuya realización total no finalice en esa fecha, aunque si lo deberá hacer alguna de sus fases con identidad suficiente para presentar resultados medibles.
- La viabilidad de su realización deberá estar suficientemente justificada.
- Las iniciativas deberán ajustarse al ámbito de la regulación que establece la Ley vasca 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado y normas de concurrente aplicación.
- Quedarán excluidos los Proyectos de Cooperación al Desarrollo

Tercera: Quienes se pueden presentar

- **Grupo Personas jóvenes (de 4 a 10 personas)** que tengan entre 16 a 30 años (nacidos entre 1990-2004). Todas estas personas deberán cumplir los requisitos de edad y, al menos, un 40%, deberán estar empadronadas en Bilbao. Nombrarán de entre ellos/as a una persona como representante que actuará como tal ante el Ayuntamiento durante todo el proceso.
- **Entidades sin ánimo de lucro inscritas en el Registro de Participación Ciudadana del Ayuntamiento de Bilbao o entidades mercantiles domiciliadas en Bilbao**, siempre que estén integradas en un 60% por jóvenes que tengan la edad indicada en el párrafo anterior. Cada entidad nombrará a un/a representante que actuará como tal ante el Ayuntamiento durante todo el proceso.

Cuarta: ¿Cómo te apoyamos?

Se seleccionarán hasta un máximo de **5 Iniciativas que recibirán un premio de 4.000 €** cada una, destinados a la ejecución del proyecto.

Los premios tendrán la retención fiscal que en su caso corresponda

Quinta: Como y cuando presentar tu proyecto?

Cumplimentando el formulario de inscripción que está disponible en <http://bilbaogazte.bilbao.eus>. Junto al formulario de inscripción podrá enviarse también un video de presentación del proyecto con una duración no superior a 3 minutos como complemento explicativo.

El plazo de presentación de solicitudes será de 20 días hábiles – sin contar, sábados, domingos y festivos- contados a partir del día siguiente a la publicación del anuncio de la convocatoria en el BOB, finalizando a las 23:59 horas del último día de plazo.

Las solicitudes se enviarán a la dirección balioakmartxan@bilbao.eus

Sexta: Proceso de Selección de la iniciativas

Primera Fase: El Área de Juventud y Deporte comprobará el cumplimiento de los requisitos de la convocatoria. Se podrá solicitar alguna aclaración o completar aspectos de la solicitud que no estuvieran claros. También se podrá proponer a los y las promotoras que reajusten su iniciativa y/o presupuesto.

Segunda Fase: El Jurado estará integrado por tres personas:

- Una en representación del Área de Juventud y Deporte
- Una en representación de Bolunta
- Una en representación de Euskadiko Gazteriaren Kontseilua- Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK)

El Jurado realizará la valoración de las iniciativas que cumplan los requisitos de la convocatoria, ordenándolas por puntuación de mayor a menor. Las 5 iniciativas que hayan obtenido mayor puntuación obtendrán premios. En caso de posibles abandonos o descalificaciones de alguna

iniciativa premiadas, se seguirá el orden de prelación para conceder premio a la siguiente iniciativa mejor puntuada.

La comunicación del fallo del Jurado y la entrega de los premios será pública

El abono de los premios se realizará tras la resolución del Jurado.

Séptima: Criterios de valoración

- Su creatividad, originalidad y carácter innovador.
- Número de personas voluntarias que participen en la iniciativa.
- Su vinculación con la Carta de Valores de Bilbao *Bilbao Baiioen Hiria*
- Impacto e interés social de la realización del proyecto o idea
- El liderazgo de los y las jóvenes promotoras en el proceso de diseño y ejecución de la iniciativa
- Participación del tejido social en el diseño de la idea y/o en su realización
- Calidad técnica del proyecto y viabilidad en su ejecución.
- Sostenibilidad del proyecto idea.

Octava: Documentación a presentar por las personas/entidades que resulten ganadoras

- Ficha de acreedores conforme al modelo que le será facilitado por el Ayuntamiento.
- CIF
- Certificado de titularidad de la cuenta bancaria donde se va a efectuar el abono del premio, o en su defecto, cualquier otro documento que acredite la titularidad de la misma.
- Declaración responsable firmada de no estar incurso en prohibiciones del art. 13 de la Ley de Subvenciones y el art. 24.2 de la ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres, conforme al modelo que le será facilitado por el Ayuntamiento
- Certificado de estar al corriente de obligaciones de Hacienda Foral y Seguridad Social, o en su caso , autorización al Ayuntamiento para comprobarlo de acuerdo al modelo que les será facilitado.
- Declaración responsable firmada por quien ostente la representación de la entidad de estar integrada en un 60% por jóvenes que cumplen los requisitos de edad, que se concretan en la Cláusula Tercera.

Novena: Obligaciones de los y las concursantes y premiados/as

- La presentación de la solicitud de participación en el concurso lleva implícita la aceptación de las bases de la convocatoria.
- El diseño, desarrollo y ejecución de la iniciativa se realizará bajo la responsabilidad de las entidades o de los y las jóvenes promotores/as en los términos establecidos en la iniciativa premiada.
- Las personas y entidades ganadoras vendrán obligadas a ejecutar la iniciativa de la forma en que hubiera sido proyectada. Cualquier modificación deberá ser justificada y autorizada por el Área de Juventud y Deporte. La no ejecución del proyecto o su ejecución defectuosa o modificada sin autorización obliga a los y las concursantes a la devolución del premio. El Ayuntamiento de Bilbao podrá exigir el reintegro total o parcial del premio.
- Participar, salvo causa debidamente justificada, en los actos públicos organizados por el Ayuntamiento de Bilbao con motivo de la comunicación del fallo del Jurado, la entrega de los premios y/o la presentación de los proyectos realizados. Cualquier acto organizado se desarrollará en el término municipal de Bilbao.
- Tras la ejecución del proyecto, las entidades o personas premiadas deberán presentar ante el Área de Juventud y Deporte una memoria descriptiva del proceso de realización, así como de la valoración de los resultados, evaluando el grado de cumplimiento de los objetivos planteados y el impacto social producido. La memoria deberá contener fotografías y un video (de 2 a 3 minutos de duración) relativos a las diferentes fases del proceso y de su valoración por parte de los participantes.
- La inscripción en el concurso conlleva la cesión de los derechos de difusión de la memoria, las fotografías y videos para su uso por parte del Ayuntamiento de Bilbao, tanto en sus webs, como redes sociales o cualquier otro medio que considere de interés para la difusión de las ideas, de los premios y del programa en su conjunto.

Décima: En lo no previsto en estas Bases, se regirá, con carácter supletorio, la Ordenanza General reguladora de las bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por

el Ayuntamiento de Bilbao y sus organismos y entidades de derecho público, aprobada en fecha 30 de junio de 2016 por el Excmo. Ayuntamiento Pleno y publicada en el BOB núm.138, de 20 de julio de 2016.

Bilbao, a 20 de enero de 2020

ÁREA DE JUVENTUD Y DEPORTE

Bilboko Udalaren Gazteria eta Kirol Sailak **BILBAO GAZTE BALIOAK MARTXAN** sarien **hirugarren edizioaren** deialdia egin du, ingurune soziala hobetu nahi duten gazteen ekimenei laguntza emateko eta ezagutzera emateko.

Hirugarren edizio honetan eta **Bilboko Udalaren Gazteen Boluntarioritza Programaren** barruan eta *Bilbao Balioen Hiria* gutunaren ildotik, Bilbok planteatzen dituen desafio sozialei aurre egiteko ideia sortzaileak bultzatu nahi ditugu, 16-30 urteko gazteen parte-hartzearen eta borondatezko ekintzaren bidez.

DEIALDIAREN OINARRIAK

Bat: Deialdiaren helburuak

- Gizartearen eskariei begira, gazteen artean sormena, partaidetza, konpromisoa eta ahalegintzeko gaitasuna sustatzea.
- Gazteen ikuspegia oinarri hartuta, Bilbo jasangarriagoa sustatzea, gizartearen eta ingurumenaren aldetik.
- Eta gazteei aukera ematea proiektu sozial, artistiko, kultural, ekologiko, ekonomiko, zientifiko, digital, teknologiko bat edo bestelakoa gauzatzeko.

Bi: Zelako ekimenak bilatzen ditugu?

- Gizartean eragina duten **ekimen** berritzaileen bila gabiltza, 16 eta 30 urte bitarteko gazteen parte-hartzea eta borondatezko ekintza sustatzeko, *Bilbao Balioen Hiria* gutunaren ildotik.
- Hauek izan daitezke xedeak:
 - irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek bultzatutako boluntario-ekintzetan herritarren parte-hartzea sustatzea
 - gazteen boluntarioritza sustatzen eta bultzatzen duten ekintzak egitea.

- Borondatezko lanaren edo mugikortasunaren esparruan, Europako proiektuei lotuta egon daitezke.
- Proiektuak Bilbon edo uritik kanpo egingo dira; azken kasu horretan, Bilboko boluntario gazteen partaidetza handia egiaztatu beharko da.
- 2020-12-31 baino lehen egin behar dira eta emaitza nabaria izan behar dute. Egun horretan bukatzen ez diren proiektuak aurkeztu ahal izango dira; hala ere, faseren bat bukatuta eduki beharko da egun horretarako, neurgarriak diren emaitzak aurkezteko adinako identitatearekin.
- Bideragarria dela behar bezala justifikatu beharko da.
- Boluntariotzari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 25eko 17/1998 Legeak ezartzen dituen arauetara egokitu behar dira ekimenak.
- Kanpoan geratuko dira garapenerako lankidetzako proiektuak.

Hiru: Nortzuk aurkez daitezke?

- **4-10 gazteko taldea**, 16 eta 30 urte bitartekoak (1990-2004 urteen bitartean jaiotakoak). Pertsona guztiek bete beharko dute adinaren baldintza eta gutxienez % 40a Bilbon erroldatuta egongo dira. Euren artean pertsona bat izendatuko dute, prozesu osoan Udalaren aurrean ordezkari modura aritzeko.
- **Bilboko Udalaren Herritarren Partaidetzako Erakundeen Erregistroan inskribatutako irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo Bilbon egoitza daukaten merkataritza erakundeak**, aurreko paragrafoan adierazitako adina daukaten gazteak % 60 badira. Erakunde bakoitzak pertsona bat bat izendatuko du, prozesu osoan Udalaren aurrean ordezkari modura aritzeko.

Lau: Zelan lagunduko dizugu?

Gehienez **5 ekimen hautatuko dira eta bakoitzak 4.000 euroko saria jasoko du**, proiektua gauzatzeko.

Sariak dagozkien atxikipen fiskala izango dute.

Bost: Zelan eta noiz aurkeztu zure proiektua?

<http://bilbaogazte.bilbao.eus> helbidean dagoen inprimakia bete behar da. Izena emateko inprimakiarekin batera, proiektua aurkezteko bideo bat bidali daiteke (gehienez 3 minutu), osagarri modura.

Eskaerak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da –zapatuak, domekak eta jaiegunak kontatu gabe–, deialdiaren iragarkia BAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eta azken eguneko 23:59an amaituko da.

Eskariak helbide honetara bidaliko dira: balioakmartxan@bilbao.eus

Sei: Ekimenak hautatzeko prozesua

Lehenengo fasea: Gazteria eta Kirol Sailak deialdiko baldintzak betetzen diren ala ez aztertuko du. Eskarian alderdiren bat argi ez badago, argibideak eskatu edo gauzaren bat osatzea eska dezake. Ekintzaileei beren ekimena edo/eta aurrekontua doitzea ere proposa dezake.

Bigarren fasea: Epaimahaiak hiru partaide izango ditu:

- Gazteria eta Kirol Saileko ordezkari bat.
- Bolunta elkartearen ordezkari bat.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) ordezkari bat.

Deialdiaren baldintzak betetzen dituzten ekimenak baloratuko ditu epaimahaiak, eta puntuazioaren arabera ordenatuko ditu (puntuaziorik handienetik txikienera). Punturik gehien lortzen dituzten bost ekimenek sariak jasoko dituzte. Saritutako ekimenen batek atzera egiten badu edo deskalifikatu egiten bada, hurrenkerari jarraituko zaio puntuaziorik onena lortu duen hurrengo ekimenari saria emateko.

Epaimahaiaren epaia eta sarien banaketa publikoak izango dira.

Epaimahaiak bere ebazpena eman ondoren ordainduko dira sariak.

Zazpi: Balorazio irizpideak

- Sormena, originaltasuna eta izaera berritzailea.
- Ekimenean parte hartu duten boluntarioen kopurua.
- *Bilbao, Balioen Hiria* gutunarekin daukan lotura.
- Proiektua edo ideia gauzatzeak gizartean dituen inpaktua eta interesa.
- Sustatzaile gazteen lidergoa, ekimena diseinatu eta gauzatzeko prozesuan.
- Gizartearen parte-hartzea ideia diseinatzean edo/eta gauzatzean.
- Proiektuaren kalitate teknikoa eta betearazpenaren bideragarritasuna.
- Proiektuaren edo ideia jasagarritasuna.

Zortzi: Irabazleek aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Hartzekodunen fitxa, Udalak emango dien eredia erabilia.
- IFK.
- Saria ordainduko den banketxe-kontuaren titulartasunaren ziurtagiria; bestela, titulartasuna egiaztatzen duen beste edozein agiri.
- Dirulaguntzei buruzko Legearen 13. artikuluko debekuetan eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen 24.2 artikuluko debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko adierazpen sinatua. Udalak emango du horretarako eredia.
- Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez daukala erakusten duen ziurtagiria; bestela Udalari emango zaio baimena hori baieztatzeko, Udalak beran emandako eredia erabilia.
- Erakundearen ordezkariak sinatutako erantzukizuneko adierazpena, adinaren baldintzak betetzen dituzten % 60 gazteak direla ziurtatzeko, hirugarren klausulan zehazten den moduan.

Bederatzi: Parte-hartzaileen eta sarituen betebeharrak

- Lehiaketan parte hartzeko eskaria aurkezteak esan nahi du deialdiaren oinarriak onartzen direla.

- Ekimenaren diseinua, garapena eta betearazpena erakunde edo gazte sustatzaileen erantzukizunpean egingo dira, saritutako ekimenean ezarritako moduan.
- Proiektatu den moduan egin beharko dute ekimena saritutako pertsonak eta erakundeak. Edozein aldaketa justifikatu egin beharko da eta Gazteria eta Kirol Sailak baimendu beharko du. Proiektua ez bada egiten, akatsekin edo baimendu gabeko aldaketekin egiten bada, parte-hartzaileek saria itzuli beharko dute. Bilboko Udalak saria osorik edo zati batean itzultzea eska dezake.
- Bilboko Udalak antolatzen dituen ekitaldi publikoetan parte hartzea, behar bezala justifikatutako arrazoengatik izan ezik. Ekitaldi horiek epaimahaiaren epaia jakinarazteko, sariak banatzeko edo/eta egindako proiektuak aurkezteko izango dira. Antolatzen den edozein ekitaldi Bilbon egingo da.
- Proiektua egin ondoren, saritutako erakundeak edo pertsonak betearazpen-prozesuari eta emaitzen balorazioari buruzko memoria deskribatzailea aurkeztuko dute Gazteria eta Kirol Sailean, proposatutako helburuen betetze-maila eta gizartean eragindako inpaktua ebaluatuz. Memorian argazkiak eta 2-3 minutuko bideo bat sartuko dira, prozesuaren faseak eta parte-hartzaileen balorazioa erakusteko.
- Lehiaketan izena emateak memoria, argazkiak eta bideoak zabaltzeko eskubidea lagatzea dakar, Bilboko Udalak erabil ditzan bere webguneetan, sare sozialetan edo ideiak, sariak eta programa osoa zabaltzeko egokitzat jotzen duten beste edozein baliabidetan.

Hamar: Oinarrietan aurreikusi ez den orotan, Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da, ordezko modura. Ordenantza hori 2016ko ekainaren 30ean onartu zuen Bilboko Udalbatzarrak eta 2016ko uztailaren 20an argitaratu zen BAOn (138. zenbakia).

Bilbon, 2020ko urtarrilaren 20an

GAZTERIA ETA KIROL SAILA

